

2022KO EKITALDIKO MEMORIA

1. oharra.- Erakundearen antolaketa eta jarduera.

a) Erakundea sortzeko / arautzeko arauak

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezartzen du foru aldundiaren eskumena dela 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei (Gasteiz izan ezik beste guztiei) suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua ematea. Zehazki, 2013ko abenduaren 31tik aurrera, aldundiek bere gain hartu behar dute zerbitzu ematea, aipatutako udalerriek zerbitzu hori ematen ez badute, eta ordutik aurrera berariaz izango da foru aldundiaren berezko beste eskumen bat, eta, beraz, eska daitekeena.

Bestalde, Larrialdiak Kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak lurralde historikoei esleitzen dizkie prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua sortu, antolatu eta mantentzeko eginkizuna. Eskumen hori mantendu egiten da martxoaren 28ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Larrialdiak Kudeatzeko Legearen oraingo testu bateginean.

Foru ordenamenduak eskaintzen dituen aukeren artean, erakunde autonomo bat sortzea erabaki da, zuzenean emateko Arabako suteen prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua, 1992. urtetik Aiarako Kuadrillako lurraldean zerbitzua ematen zuen Aiarako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa azkenduz.

Horretarako, Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko uztailaren 13an eginiko osoko bilkuran, onespena eman zioten uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauari, zeinaren bidez eratzen baita Arabako Suhiltzaileak Erakunde Autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua). Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2016ko uztailaren 28an egindako bileran erabaki zen jarduera 2016ko urriaren 1ean hastea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 127. artikuluan ezarritakoaren arabera, partzuergoko erakundeek aktiboak eta pasiboak juridikoki egokia den sektore publikoko beste erakunde bati lagatzea erabaki ahal izango dute, estatutuetan ezartzen den gehiengoarekin edo, estatutuetan aurreikuspenik ez badago, aho batez, jardueraren jarraipenari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren helburuak lortzeko, eta aktiboek eta pasiboek lagapen orokorrak partzuergo lagatzailea likidaziorik gabe azkentzea ekarriko duela kontuan hartuta, 2016ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arte erregistratutako eragiketa guztiak eta azkendutako Aiarako PSISZ Partzuergoaren 2016ko urtarrilaren 1eko hasierako saldoak erakunde autonomo berrian integratu ziren.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoa Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari atxikita dago –gaur egun Lurralde Oreka Saila da, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, zeinaren bidez zehazten baitira Arabako Foru Aldundiaren sailak 2019-2023 legegintzaldirako–, eta hark ditu Zerbitzua planifikatzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak.

b) Erakundearen jarduera nagusia, haren lege, ekonomia eta finantza eta kontratazio araubidea.

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) foru erakunde autonomoa erakunde publikoa da, berezko nortasun juridikoa dauka eta bere barne araubidean zein jardueran zuzenbide publikoa aplikatzen zaio. Erakunde tekniko espezializatu bat da, xedetzat daukan zerbitzu publikoa (prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ematea Arabako Lurralde Historikoan) kudeatu eta ematen duena eta babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloan parte hartzen duena.

Erakunde autonomoa azaroaren 25eko 27/1983 Legeak arautuko du, zeina baita Autonomia Erkidegoko erakundearen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanena, haren xedea den zerbitzu publikorako legean bertan ezarritako eskumen esparruari dagokionez, bai eta sektoreko gaien berariazko araudiak ere.

Erakundearen antolamendua eta funtzionamendua, berriz, erakunde autonomoen araubide juridikoa ezartzen duen foru araudiaren, haren estatutuen eta hura garatzen duen erregelamenduaren pean egongo dira.

Administrazio ahalak erabiltzean, dagokion foru araudia ez ezik, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea edo hura ordezkatzeko duen araudia ere bete beharko ditu.

Erakunde autonomoaren kudeaketan urteko aurrekontu araudia bete beharko da, eta Batzar Nagusiei dagokie hura onestea. Aurrekontuen egitura (sarreraren eta gastuen sailkapena, xehetasun maila, eta horien gauzatzea eta likidazioa) Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Araubideko arauarekin eta erregelekin bat etorritik eratu behar da, eta batik bat Jarduera ekonomikoaren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoaren kudeaketaren urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak eta Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuen araubide ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Erakunde autonomoaren kontabilitatean, kontu ematean eta kontu hartzean aplikatuko den araubidea da Arabako Foru Aldundiaren kontrol ekonomikorako eta kontabilitaterako araudi bereziak foru erakunde autonomoentzat ezarritakoa.

Kontratazio araubidea Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasorikoa da, zeinaren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora.

c) Diru sarreraren iturri nagusien deskribapena

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK erakunde autonomoaren baliabide iturri nagusia Arabako Foru Aldunditik jasotzen dituen transferentziak dira, bai eta jaso ditzakeen diru sarrera arruntak edo apartekoak ere, eta haien artean daude erabiltzaileei emandako zerbitzuengatik ordaintzen dizkieten tasak eta kuotak eta beste administrazio batzuek beren eskumeneko zerbitzuak emateagatik egiten dituzten ekarpenak.

d) Erakundearen izaera fiskala.

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK izenarekin foru erakunde autonomo bat eratu da, izaera juridiko propioarekin, eta jarduteko eta Araba Lurralde Historikoaren eremuan prebentzio, su itzaltze eta salbamenduaren inguruko foru eskumeneko jarduerak kudeatzeko gaitasun osoarekin, gai honetan beste administrazio publiko batzuek eduki dauzkaten balizko eskumenez gainera.

e) Antolamendu egitura

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK erakunde autonomoaren gidaritza organoak Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza-Kudeatzailletza dira.

Administrazio Kontseilua erakunde autonomoaren gobernu organoa da, eta hari dagokio erakunde autonomoaren jardueraren antolamendu orokorra kudeatu eta administratzeko zuzendaritza nagusia; horretarako, haren lehentasunak eta zerbitzu publikoak hobetzeko proiektuak onesten ditu eta ezarrita dauzkan egitekoak aztertzen eta ebaluatzen ditu, eta behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak kalkulatzeko ditu.

Zuzendaritza-Kudeatzailletzak erakunde autonomoaren kudeaketa exekutiboaren zuzeneko ardura dauka.

Bakoitzaren eskumenak eta eginkizunak, bai eta Administrazio Kontseiluko lehendakariarenak eta lehendakariordearenak ere, estatutuetan finkatzen dira.

g) Zein erakunderen menpe dagoen

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK izenarekin erakunde autonomo bat eratzen da Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari atxikia (gaur egun Lurralde Orekaren Saila da, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, zeinaren bidez zehazten baitira Arabako Foru Aldundiaren sailak 2019-2023 legegintzaldirako).

h) Batez besteko langile kopurua ekitaldian zehar eta 2022ko abenduaren 31n

Ekitaldian, batez beste 208 enplegatu izan dira, eta 2022ko abenduaren 31n 209 enplegatu (197 gizon eta 12 emakume).

2. oharra.- Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

2.1) Irudi fidela

a) Informazioaren betekizunak:

Ondare kontabilitatean islatutako kontabilitateko jarduketarik gehien jatorria aurrekontuko kontabilitateko eta aurrekontuz kanpoko eragiketarako jarduketetan dago. Horregatik, jarduketa hauetan aplikatutako kontabilitateko printzipioak Araba Lurralde Historikoko Ekonomiako eta Aurrekontuko Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauan jasotakoak dira. Printzipio horiek zehatz-mehatz egokitzen zaizkie Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren nahitaezko kontabilitate printzipioei (abenduaren 18ko 75/2012 Foru Dekretua).

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak 2022ko ekainaren 15ean onetsi zituen Administrazio Kontseiluak. 2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onesteke daude oraindik, baina aurreikusten da aldaketarik egin gabe onetsiko direla.

b) Kontabilitate printzipioak:

Urteko kontu hauek egitean memoriako 3. oharrean laburtzen diren kontabilitate printzipioak eta arauak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.

2.2) Informazioa alderatzea:

Balantze, ekonomia eta ondare emaitzaren kontu, ondare garbiaren aldaketen egoera orri, diru fluxuen egoera orri eta memoriako partida bakoitzerako, 2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion zifrak eta 2021eko ekitaldikoak aurkezten dira.

3. oharra.- Aintzatespen eta balorazio arauak.

a) Ibilgetu materiala.

Atxikitako ibilgetua kontabilitate balio garbiaren arabera dago baloratuta. Erakundeak eskuratutako ibilgetua, hau da, bere aurrekontuaren kargurakoa, aldiz, eskuratze prezioaren edo eraikitze kostuaren arabera baloratzen da.

1.000,00 eurotik beherako zenbatekoa duten ibilgetuko elementuak eskuratzeak zuzenean eramaten dira ondarearen emaitza ekonomikoen kontura.

Higiezinetan egindako eragiketa guztiak, zeinak mantentze lanen barruan sartzen baitira, zuzenean kargatzen dira ondarearen emaitza ekonomikoen kontuan (622: "Ibilgetu materialaren konponketa eta kontserbazioa kontuaren bidez).

Beste erakunde batzuen jabetza diren eraikinetako edo instalazioetako obren eragiketak zuzenean ekonomia eta ondareko emaitza kontura kargatzen dira.

Inoiz ez dira kapitalizatzen finantza gastuak.

Erakunde autonomoari atxikitako ondasunak, baldin eta egoten badira, Foru Aldundiak eskualdatu ditu, haien gainerako eskubide guztiekin batera, jabetza izan ezik.

Erakunde autonomoak ondasun horiek kontabilizatzen ditu, eta, horretarako, kargu bat egiten du 21 «Ibilgetu materialak» azpitaldeari dagokion kontuan, eta 1001 «Ondasun eta eskubideen ekarpena» kontuan ordainketa eginez.

Ekitaldi honetan, Foru Aldundiak lagatako ondasun higieziinei dagokienez, hark koordinatutako eransketa eta bajekin, atxikitako Ondarearen kontua bi erakundeen artean koadratuta mantentzeko irizpidea aplikatu da.

Amortizazio koefizienteak Ondarea Kudeatzeko Programan adierazitako balioen arabera finkatu dira. Programa horrek amortizazioaren lanketa modu xehatua egiten du, sartzen denetik irteten den arte.

Jarraian, kudeaketa programa horrek (SAP) kasu bakoitzean aplikatutako amortizazio koefizienteen laburpen bat aurkezten da, ondasun motaren arabera:

Kontua	Ondasun mota	Deskripzioa	Bizitza baliagarria Urteak/Hilabeteak
210000	Guztiak	LURSAILAK ETA ONDASUN NATURALAK	Mugagabea
211000	Guztiak	ERAIKUNTZAK	50/00
216000	Guztiak	ALTZARIAK	08/08
217000	Guztiak	INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK	04/00
214000	N06106	BESTE MAKINA BATZUK	06/08
214000	N06201	TRESNAK	05/00
215000	N06812	BESTE INSTALAZIO TEKNIKO BATZUK	04/00
218000	N06501	IBILGAILUAK ETA FURGONETAK	07/02
218000	N06502	KAMIOIAK	05/00
218000	N06601	IBAI ONTZIAK	07/02

b) Ibilgetu ukiezina

Atxikitako ibilgetua kontabilitate balio garbiaren arabera dago baloratuta. Erakundeak eskuratutako ibilgetua, hau da, bere aurrekontuaren kargurakoa, aldiz, eskuratze prezioaren edo eraikitze kostuaren arabera baloratzen da.

Amortizazioa linealki kalkulatzen da 4 urteko epe batean, % 25eko tasaren arabera.

c) Izakinak.

Erregaien, ordezeko piezen, hainbat materialen, bilgarrien eta bulegoko materialen izakinak ez dira kontabilizatu; izan ere, ez da egin horien inbentario fisikorik ekitaldiaren amaieran beren saldoa zuzendu ahal izateko. Gisa horretako eskuratzeak zuzenean kargatzen dira ekonomia eta ondareko emaitzen kontura ("Hornidurak" izeneko 628 kontuaren bidez), beste hornikuntza batzuen erosketa gisa kontabilizatu eta 612 kontuaren ("Beste hornikuntza batzuen izakinen aldakuntza") bidez ekitaldiaren amaieran erregularizatu beharrean; izan ere, ez dira oso esanguratsuak.

d) Transferentziak eta dirulaguntzak

Gastu arruntak finantzatzeko dirulaguntzak honi egotzi zaizkio: dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastuak zein ekitalditan sortzen diren, horren emaitzari. Ostera, aktiboak eskuratzeko kapital dirulaguntzak ekitaldi bakoitzaren emaitzari egotziko zaizkio, ondasunaren bizitza baliagarriaren proportzioan, elementu horiek amortizatzeko hornidurarako erabili den metodo bera aplikatuz.

e) Hartzekodunak.

Epe luzerako eta laburrerako zorrak beren ordainketa balioaren arabera agertzen dira kontabilizatuta.

f) Diru sarrerak eta gastuak.

Diru sarrerak eta gastuak horiek ordezkatzeko dituzten ondasunen eta zerbitzuen korrante errealearen arabera aitortzen dira, betiere zuzentzeren printzipioaren premisarekin.

g) Hornidurak eta kontingentziak

Zordunen saldoak beharrezkoak diren balorazio zuzentzeren balio izendun garbiaren arabera adierazten dira, zuzentzeriazko irizpideak aplikatuz. Irizpide orokor gisa, itxita ekitaldietan kobratzeko geratzen diren diru sarreraren % 100 hornitzea erabaki da, dirulaguntzak edo jasotako transferentziak ez direnak.

4. oharra. Ibilgetu materiala.

Ibilgetu materialaren mugimenduak honako xehetasun hau du 2022ko ekitaldian.

Ekitaldiko alta gisa, aleko eskuratzeko balioa 1.000,00 euro baino gehiagokoa duten ondasunak soilik izan dira kontuan, foru aldundiak emandako irizpidearen arabera.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Lursailak	125.952,08	0,00	0,00	0,00	125.952,08
Eraikuntzak	6.145.468,71	25.046,51	0,00	0,00	6.170.515,22
Makinak - Tresnak	1.048.215,15	246.885,60	0,00	0,00	1.295.100,75
Instalazio teknikoak	55.314,11	2.628,50	0,00	0,00	57.942,61
Altzariak	142.980,63	38.399,35	0,00	0,00	181.379,98
Informazioa prozesatzeko ekipak	78.162,63	71.416,22	0,00	0,00	149.578,85
Garraio elementuak	3.550.111,99	2.259.206,43	0,00	0,00	5.809.318,42
GUZTIRA	11.146.205,30	2.643.582,61	0,00	0,00	13.789.787,91

Ibilgetu materialaren amortizazioa, zeinak 447.818,74 euroko zenbatekoa baitu (454.040,36 euro 2021ean), egin da, eta 681 "Ibilgetu materiala amortizatze hornidura" kontuan bildu da.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Amaierako saldoa
Amort. Metaketa Eraikuntzak	634.714,30	142.890,07	0,00	777.604,37
Amort. Metaketa Makinak - Tresnak	757.802,51	88.887,96	0,00	846.690,47
Amort. Metaketa Inst. teknikoak	31.832,65	7.417,76	0,00	39.250,41
Amort. Metaketa Altzariak	99.034,13	9.884,67	0,00	108.918,80
Amort. Metaketa Informazio prozesuetarako ekipoak	54.529,51	8.700,57	0,00	63.230,08
Amort. Metaketa Garraio elementuak	3.142.201,79	190.037,71	0,00	3.332.239,50
GUZTIRA	4.720.114,89	447.818,74	0,00	5.167.933,63

Ekitaldiaren itxieran erabat amortizatuta eta, horrenbestez, “zero” kontabilitate balioa dutela, agertzen dira honako elementu hauek. Beren eskuratze balioaren eta kontuaren arabera adierazi ditugu:

KONTUA	Elementu kop.	Eskuratze edo atxikitze balioa
Makinak eta tresnak	224	600.901,08
Instalazio teknikoak	9	14.109,08
Altzariak	44	72.913,95
Informazioa prozesatzeko ekipoak	16	48.198,65
Garraio elementuak	82	2.729.344,01
GUZTIRA	375	3.465.466,77

Bestalde, egiaztatu da badirela Arabako Foru Aldundiak eskuratutako ondasun batzuk, zeinak erakundea erabiltzen ari baita, eta ez direla kontabilitatean alta eman, dagokion atxikipen akordioa hartu ez delako. Haien artean, Renault Clio bi ibilgailu nabarmentzen dira.

Arabako Foru Aldundiak ondasun horiek erakundeari atxikitzea erabakitzen duenean egingo da haien kontabilitate erregistroa, eta 2023ko ekitaldian zehar egitea espero da.

5. oharra.- Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinaren mugimenduak eta 2022ko amortizazio metatua erantsitako moduan xehatzen dira.

Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa, zeinak 10.644,23 euroko zenbatekoa baitu (30.464,64 euro 2021ean), egin da eta 680 “Ibilgetu ukiezina amortizatzeko hornidura” kontuan bildu da.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Aplikazio informatikoak	136.061,29	0,00	0,00	0,00	136.061,29
Bestelako ibilgetu ukiezina	137.751,29	0,00	0,00	0,00	137.751,29
GUZTIRA	273.812,58	0,00	0,00	0,00	273.812,58

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Amaierako saldoa
Amort. Metaketa Aplikazio informatikoak	107.095,35	10.644,23	0,00	117.739,58
Amort. Metaketa Bestelako ibilgetu ukiezina	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	107.095,35	10.644,23	0,00	117.739,58

Ekitaldiaren itxieran erabat amortizatuta eta, horrenbestez, "zero" kontabilitate balioa dutela, agertzen dira honako elementu hauek. Beren eskuratze balioaren eta kontuaren arabera adierazi ditugu:

KONTUA	Elementu kop.	Eskuratze edo atxikitze balioa
Aplikazio informatikoak	6	93.484,36
GUZTIRA	7	93.484,36

6. oharra. Ondare garbia.

Ondare garbian 2022ko ekitaldian erregistratutako mugimenduak honela xehatzen dira:

Ondasun eta eskubideen ekarpena: Arabako Foru Aldundiak atxikitako ondasun guztiek osatzen dute saldoa.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Ondasunen eta eskubideen ekarpena	9.452.443,87	2.346.025,46	0,00	0,00	11.798.469,33
Erakunde jabearen edo jabeen beste ekarpen batzuk	76.889,48	0,00	0,00	0,00	76.899,48
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-3.025.205,81	0,00	0,00	-374.769,39	-3.399.975,20
Ekitaldiko emaitza	-374.769,39	14.797.981,36	-15.136.203,72	374.769,39	-338.222,36
Ibilg. ez-finantz. finantz. dirulag.	484.555,06	297.557,15	0,00	-119.047,29	663.064,92
KONTABILITATE BALIO GARBIA	6.613.913,21	17.441.563,97	-15.136.203,72	-119.047,29	8.800.236,17

7. oharra. Zordunak.

a) 430 "Aitortutako Eskubideen Zordunak" kontua, uneko ekitaldikoa.

Ekitaldiaren amaieran, erakunde autonomoak uneko ekitaldiko zordunen 948.777,44 euroko saldoa du (954.953,78 euro, 2021eko ekitaldia ixtean).

b) 431 «Itxitako ekitaldietako eskubideak» kontuan, ekitaldiko zordunen saldoa 28.497,85 eurokoa da.

8. oharra. Hartzekodunak.

a) 400 "Aitortutako obligazioen hartzekodunak" kontua, uneko ekitaldikoa.

Ekitaldiaren itxieran ordaintzeko dauden aurrekontuko hartzekodunak daude, 424.508,30 euroko zenbatekoa dutenak (658.054,73 euro 2021eko ekitaldiaren itxieran).

b) Hona hemen 47 "Erakunde publiko

hartzekodunak" azpitaldearen xehakapena:

KONTUA	2022KO SALDOA	2021EKO SALDOA
475.5 Ogasun publiko hartzekoduna, kontzeptu fiskalen ondorioz	269.557,77	191.100,30
476.4 Gizarte Segurantzza	410.858,63	297.864,09
476.3 Elkarkidetza	30.682,89	28.739,30
476.1 Foru Elkarkidegoa	2.283,97	2.144,26
GUZTIRA	713.383,26	519.847,95

9. oharra.- Finantza kontuak.

a) 57 "Eskudirua eta pareko beste aktibo likido batzuk" azpitaldea.

Erakunde autonomoaren diruzaintzaren hasierako saldoa, 2022ko urtarrilaren 1ean, 227.807,83 eurokoa da, eta ekitaldiko mugimenduen fluxuak sortutako azken saldoa, berriz, 194.867,44 eurokoa.

10. oharra.- Gordailuan jasotako baloreak.

560 "Epe motzera jasotako fidantzak" kontuan, obligazio bat betetzearen berme gisa jasotako eskudirua islatzen da, zeina osatzen denetik urte beteko epean mugaeguneratzen baita.

Ekitaldiaren amaieran, erakunde autonomoak 4.587,89 euroko saldoa du (3.293,89 euro, 2021eko ekitaldia ixtean).

11. oharra.- Diru sarrerak eta gastuak.

a) Gizarte kargak

Hona hemen kontzeptu hori dela-eta ekitaldian zehar izandako gastuak, xehaturik:

64. GIZARTE KOTIZAZIOAK	2022KO EK.	2021EKO EK.
642.0 Gizarte Segurantzak	3.387.044,23	3.429.867,22
643.0 Elkarkidetza	99.448,55	98.256,39
649.0 Jarduneko langileen beste gizarte gastu batzuk	252.432,14	118.982,80
GUZTIRA	3.738.924,92	3.647.106,41

b) Transferentziak eta emandako dirulaguntzak

Suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzua emateko lankidetza hitzarmenak egiteagatik Administrazio Orokorreko udalei eta toki erakundeei egindako transferentziak jasotzen ditu, eta ekitaldiaren amaieran honako xehetasun hauek aurkezten ditu:

65. TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK	2022KO EK.	2021EKO EK.
Hitzarmena Gaubeako Udalarekin	4.948,55	4.798,12
Hitzarmena Kanpezuko boluntarioen taldearekin	7.098,91	7.605,83
GUZTIRA	12.047,46	12.403,95

c) Transferentziak eta jasotako dirulaguntzak

Kontu honetan, batez ere, erakunde autonomoaren aurrekontu defizita berdintzeko Foru Aldundiarengandik jasotako transferentziak jasotzen dira, honela xehatuta:

JASOTAKO TRANSFERENTZIAK	2022KO EK.	2021EKO EK.
Korronteak. Arabako Foru Aldundia	14.406.216,66	13.715.455,36
Korronteak. Burgosko Diputazio Probintziala	35.000,00	35.000,00
Kapitala. Arabako Foru Aldundia	454.188,93	356.312,67
GUZTIRA	14.895.405,59	14.106.768,03

Inbertsioak finantzatzeko jasotako kapitaleko dirulaguntzak osorik intsuldatu dira 130 "Aktibo ez-finantzarioak finantzatzeko dirulaguntzak" kontura; hona hemen 2022ko ekitaldiko mugimendua:

130 kontuaren hasierako saldoa	484.555,06
2022an eskuratutako aktibo finkoak	454.188,93
6281 "Material inbentariaezina" kontura intsuldatzea	-156.631,78
Ekitaldiko emaitzara intsuldatzea Zuzkidura Amortizazioa	-119.047,29
130 kontuaren amaierako saldoa	663.064,92

d) Foru sozietate publikoekin egin diren beste eragiketa komertzial batzuk:

2022ko eta 2021eko ekitaldietan foru sozietate publikoekin egindako merkataritza transakzioak honako hauek dira:

SOZietATEA	GASTUAREN BOLUMENA		SALDO HARTZEKODUNA	
	2022	2021	2022	2021
INDESA 2010 SL	30.254,15	30.429,52	2.521,25	3.212,56
ARABAKO KALKULUGUNEA SA	20.178,24	18.000,00	5.178,24	1.500,00
GUZTIRA	50.432,39	48.429,52	7.699,49	4.712,56

12. oharra.- Langileak.

Estatuaren 2022rako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, langileen ordainsariak hazi egin dira % 2 orotara, 2021eko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean, bi aldi horiek homogeneoki alderatuta, hala langileen soldatari dagokienez nola dagokien antzinasunari dagokionez. Horrez gain, urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan, ordainsarien % 1,5eko igoera gehigarria onesten da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 376/2022 Erabakiaren bidez, % 2ko soldata igoera onetsi zen 2022rako Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoan, 2021eko ordainsariekin alderatuta. Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 846/2022 Erabakiaren bidez, % 1,5eko soldata igoera gehigarria onetsi zen 2022rako Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoan, 2022ko ordainsariekin alderatuta.

13. oharra.- Administrazio kontratazioa. Adjudikazio prozedurak.

2022ko ekitaldian, honako administrazio kontratazio hauek egin dira:

- Arnasketa autonomoko ekipoak; balio zenbatetsia: 147.630
- Suhiltzaileen aldagela 90 armairuz hornitzea; balio zenbatetsia: 31.500
- Kartzelatik ateratzeko ekipamendu elektrikoa; balio zenbatetsia: 43.160,94
- Erakunde autonomoaren suteak itzaltzeko eskualdeko hainbat unitate (SISEU) garbitzeko zerbitzua kontratatzea; balio zenbatetsia: 82.100
- Norbera babesteko ekipoak (ehunak babesteko jantziak, suhiltzaileen kaskoak) eta arnasbideak babesteko ekipoak (maskarak, erregulagailuak eta horma barrak) garbitu, desinfektatu eta lehortearekin lotutako lanetarako garbigailu batez, lehorgailu batez eta desinfekzio kabina batez hornitzea. Balio zenbatetsia: 60.566,67
- Ordutegiaren kontrola, txanden plangintza eta kudeaketa eta langileekiko web bidezko bi noranzkoko komunikazioa ahalbidetzen duten irtenbide informatikoen urteko mantentze lanak, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoarekin lotutako alderdiei dagokienez; balio zenbatetsia 26446,28

14. oharra.- Ingurumenari buruzko informazioa.

Ez dago dagozkion aurreikuspenen bidez babestu beharreko ingurumen arloko arrisku edo kosturik. Era berean, ez dago ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotutako gertakizunik irekita, eta, bestalde, ez dago ingurumenaren arloko etorkizuneko inbertsioetarako konpromisorik, ez eta ingurumenarekin lotutako erantzukizunik eta oraindik jaso gabeko konpentsaziorik ere.

Erakunde autonomoak ez du ingurumenaren arloko dirulaguntzarik jaso, ez eta ingurumenarekin lotutako jardueren ondoriozko sarrerarik ere.

15. oharra.- Obligazioak ordaintzeko epea.

Jarraian xehatu da 2022ko eta 2021eko ekitaldietan ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko hiru hilabeterik behingo informazioa, bai eta 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu irizpideen arabera erakunde autonomoak bi ekitaldietako abenduaren 31n ordaintzeke dituen eragiketei buruzkoa ere (1040/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, zeinaren bidez aldatzen baita herri administrazioen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa araubideen baliabideak atxikitzeko baldintzak eta prozedura garatzen dituen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua).

2022ko ekitaldia:

Ekitaldian egindako ordainketak	Ordaintzeko batez besteko aldia (OBBA) (egunak)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira
1. hiru hilekoa	22,11	194	420.716,23	66	125.494,89
2. hiru hilekoa	27,62	118	129.520,82	76	58.694,22
3. hiru hilekoa	28,80	89	128.090,75	57	96.421,17
4. hiru hilekoa	26,59	207	296.096,61	82	101.220,85
Aldiaren amaieran egiteke dauden eragiketak	Ordaintzeke dagoena ordaintzeko batez besteko aldia (OOBBA) (egunak)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Erag. kop.	Zenbatekoa, guztira	Erag. kop.	Zenbatekoa, guztira
	3,79	31	253.127,99	2	2.102,04

2021eko ekitaldia:

Ekitaldian egindako ordainketak	Ordaintzeko batez besteko aldia (OBBA) (egunak)	Ordaintzeko legezkotik aldiaren barruan		Ordaintzeko legezkotik alditik kanpo	
		Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira
1. hiruhilekoa	28,11	230	282.718,04	45	166.638,80
2. hiruhilekoa	23,37	198	113.741,31	28	51.098,07
3. hiruhilekoa	25,5	134	90.508,32	48	49.640,78
4. hiruhilekoa	28,72	128	172.744,54	99	118.699,04
Ekitaldiaren amaieran egiteke dauden eragiketarakin eragiketarakin	Ordaintzeko batez besteko aldia (OOBBA)	Ordaintzeko legezkotik aldiaren barruan		Ordaintzeko legezkotik alditik kanpo	
		Erag. kop.	Zenbatekoa, guztira	Erag. kop.	Zenbatekoa, guztira
	10,78	85	184.413,35	11	16019,87

16. oharra.- Ekonomia eta ondareko emaitzaren eta aurrekontu emaitzaren arteko berdinkatzea.

		2022ko ekitaldia
+	Aitortutako eskubide garbi guztiak uneko aurrekontuan	14.980.683,93
-	Aitortutako obligazioak uneko aurrekontuan	14.994.370,60
-	Hondakinen eskubideak baliogabetzea	0,00
-	Hondakinak biribiltzeen aldea, eurotan	0,00
+	Hondakinen obligazioak baliogabetzea	0,00
Likidazio kontuaren araberrako emaitza		-13.686,67
GASTUAK		
+	6. kapituluak: "Inbertsio errealak"	454.188,93
+	8. kapituluak: "Finantza aktiboak"	19.072,70
+	9. kapituluak: "Finantza pasiboak"	0,00
Aurrekontu gastuak (eragiketa arruntak ez direnak)		473.261,63
DIRU SARRERAK		
-	6. kapituluak: "Inbertsio errealak besterentzea"	0,00
-	7. kapituluak: "Kapital transferentziak"	297.557,15
-	8. kapituluak: "Finantza aktiboak"	17.879,38
-	9. kapituluak: "Finantza pasiboak"	0,00
Aurrekontuko diru sarrerak (eragiketa arruntak ez direnak)		315.436,53

Aurrekontuz kanpoko gastuak	615.094,75
- Ekitaldiko amortizazioa	458.462,97
- Kaudimengabeziatarako hornidurak	0,00
- Gastura eramandako inbertsioak, ez direlako aktibagarritzat jotzen	156.631,78
 Aurrekontuz kanpoko diru sarrerak	 132.733,96
+ Emaizten kontura intsuldatutako ibilg. ez-finantzarioetarako dirulaguntzak	119.047,29
+ Kaudimengabeziatarako hornidurak aplikatzea	13.686,67
 Emaizta, kontabilitate orokor publikoaren arabera	 -338.222,36

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideek erakunde horren 2022ko ekitaldiko urteko kontuak onetsi dituzte.

LEHENDAKARIA:

IRMA BASTERRA UGARRIZA and.

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

LEHENDAKARIORDEA:

JESUS M^a GUINEA DIAZ DE OTALORA jn.

Lurralde Orekaren zuzendaria

KIDEA:

PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO and.

Arabako lehen diputatu nagusiordea eta
Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta
Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua

KIDEA:

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO and.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko
foru diputatua

KIDEA:

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE

SUSO, Nekazaritza Saileko foru
diputatua

KIDEA:

CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ jn.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren
Saileko foru diputatua

IDAZKARIA

ALBERTO AMENABAR AJURIAGUERRA

jn. Zuzendari-kudeatzailea

KIDEA:

ELENA FERREIRA SEBASTIAN and.

Diputatu Nagusiaren Kabinete eta Komunikazio
zuzendaria